



**«SAN MAMES» ZARRA
LUDI-JOKOETARAKO
BARRIZTUA**

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

LUDI-OSTIKOKETEA BILBO'N

KIROLAK

ZER gure aldizkari onetan ez dautsegu kirolai tokirik emon eta gure idazleak be arlo orretan bizitasunik ez dabe agertu. Ardura sakonagoak?

Baiña Ludiko Ostikoketa-Jokoai begira zerbait esan bearrean aurkitzen gara, joko orreik gure Erriagaz zer-ikusi berezia daukelako.

BILBO

Gure Bilbo, leendik be ludi osoan ezaguna, joko oneik dirala-ta ezagunago biurtuko jaku.

Bilbo'k euskaldunoi miña ta poza batera emoten dauskuz, geiena erdelduna dalako batetik eta Euzkadi'ren itxaropena geien ortxe dagoalako bestetik.

SANTI-MAMIÑE

Eta Bilbo'n, kirol-zaleentzat or daukagu ezaugarri bizi lez «San Mames» edo Santi Mamiñe zelaia, or daukagu ainbeste bizkaitarrek eta bizkaitar ez diranek maite daben gure Atletik.

Estualdietan nasaitasuna billatzen dabenak, urtenbide lez, zelai ori ta kirol-batz ori billatzen dabez eta beste berba-gai batzuk erabilli ezkerro garraztasunera errez jausten diranak, «futbol»a aitatuta egiten dabe bakea edo bake-antzekoa.

ERBESTEKOAK

Egun orreitan Bilbo erbestekoak beteko dauskue eta orrek ardurea emoten dautso gure erriari: Ostatuak, etxeai aurpegia garbitzeak, bideak konpontzeak, berebillak non sartu jakiteko urtenbideak...

Etxe bateradeituak etorten diranean etxeko andreak izaten dauzan ardurak, baiña goragoko maillan, daukez gure arduradunak.

IZUA

Eta dana poza izan ez daiten, or dago osteko aldean izu-zaleen zemaia: Zabalkunderako olako aukera ona ez dabela galduko esan ei dabe.

Baiña zein izango da izu edo ikara-zale batek egin daiken zabalkundea? Zelaian ikurrin batzuk agertzea edo oiu batzuk egitea? Irrati ta ikusirratian uin-artera, «interferentzi» etara sartzea? Ala geiago?

Zori txarrez ezin jakin illunetako amesen barririk.

POZALDIA

Dana dala, itxaropenak diñoskun lez, gure Erriak pozaldia ta azazkaldia izan daikez egun orreitan.

Ori be bearrezko gauzea da egun orreitan eta erriaren jokabidean.

ATLETIK

Atletik ba-dauka bere zeregiña erriaren bidean eta arlo batzutan egokiro bete dau bere zeregin ori.

Gitxienez jokolari euskaldunakaz jokatzean eta beti euskaldun lez agertzean.

Arlo bi oneik garrantzitsuenak dira jolas-batz euskaldun batentzat.

EGITEKOAK

Baiña ba-dauko, beste alde batetik, Bilbo'tar askok dauken erdel-kutsua be.

Ezaugarri lez agertzeko, Atletik-Batzaren ereserkia edo abestia zergaitik ez da euskeratu?

Edo Atletik egiten dauzan txartel eta agiriak, erriarentzat diranak gitxienez, zergaitik ez dira euskera ta erdera, izkuntza bietan agertzen?

AURRERA

Abertzaletasunean beti dago aurrera egin-bearra eta euskaltasunean bide luzeak daukaguz egiteko.

Ludi-joko oneik, bear ba'da, olako azterpena egiteko aukerea emongo dauskue.

ATSOTITZAK

GAZTEAK GAZTE

«Gaztea beti gazte». Esaldi au sarritan entzuten da, batzutan onerako beste batzutan tan ez ain onerako, baiña beti beti nagusien-gandik.

Zer dalata izan bear dogu derrigorrezko borrokatxo edo asarre ori gizaroen artean?

Askorentzat, gazteak, ezertarako ez dogu balio, odol bero, burubako, ule luzedun pes-tejo batzuk, edozer gara... baiña, noren es-kuetan dago geroa?

ALKARRI IRAKATSI

«Urte barik, ez da egiten gizonik». Zen-tzuna lortzeko gitxienez derrigorrezkoak dira berrogei urte, andik bera, ume moko, eta an-dik gora Ama Elizaren jakitunak.

Benetan ere, min emoten deust orrelako astokeriak entzuten dodazanean neure nagu-siengandik.

ALDAKUNTZAK BEAR

Ni-neuk galdera au egiten deusat neure bu-ruari: ain gatxa da konturatzea, edo onar-tzea, mundua, bizitza, erlejioa, egunero, illero, urtero aldatu egiten dala, aldakuntza ori derrigorrezkoa dala?

«Umien zentzune, etxien entzune». Zeri-kusi, a ikasi— Esaldi au ez dakit inork esan dauan baiña gogora etorri jat oraingoa azal-tzeko.

ABERTZALE BARRIAK

Nire abertzaletasuna edo abertzalekeria —orain edonor eta edozer da abertzale-ta— neure amumagandik dator, gerratean bene-tan sufridu eban pertsona bategandik, eta makiñatxu matrailleko artuta nago eskoletan orregaitik, baiña oso pozik izan nazen eta nazenagaitik, eta neure etxean ikusi dodana baiño ez dot aurrera eroan beti; baiña «eus-kaldun arerioak», ordungo arerioak, euren etxeetan ondo irakatsiak, «erregimenekoak», orain abertzale dirala entzuten dautseda-nean, egia esan, ez dakit zer pentsa.

Gure errefran zar, eder oneik astu egin-bearko ditugu? Ala momentu bakoitzean ego-kiena aurkitu?

Nik-neuk erabagia artu dot, eta «aber-tzale barri» onei au diñotset:

«Erroiaren arrautzeak usakumerik ez»

ESAKUNAK

Gure nagusien omenez, zarrak trapuak eta tresnak dozak eta, gure benetazko euskal-

dun oituraren oiñarri doguzan errefran zar, eder, entzungarri, ikasgarri batzuk adieraziko ditugu: Gaiak geienetan eguraldia, fedea, filo-sofia, ardua eta ezkontzari buruz izaten dira:

«Abenduko lañoa, euria edo egoa».

«Nagiaren urak tenple bi: Batean otzegi bestean beroegi».

«Andra ederra, etxean gerra».

«Ezkundu arte larri, ezkonduko da gano-rabakoa».

Igez igezkoa ta aurtan aurtengoa, nekez ezkonduko da ganorabakoa».

«Maria gurea goruetan, bear ez dan orduetan».

«Ardao gozoak lau begi ta oñik ez».

«Ez ardao bitzdunik, ez andra bizar-tsurik».

«San Antonio, San Antonio» txarria gaiso danean; eztau iñok esaten odolostea ja-ten danean.

«Munduan nai dabenak luzaroan bizi, olloakaz, oera, txoriakaz jagi».

«Daukaniak, dauko; eztaukanak, ba-leuko».

«Gure katuak buztana luze; berak lege-z besteak uste».

«Ondo eginaren pagua, ate osteko palua».

«Eztago eriotza aberatsik, ez ezkontza pobrerik».

«Auzoko beiak erroa luze».

«Arrausi luzea, loa edo gosea».

«Urruneko intxaurrak amalau, bertara joan ezkerro lau».

«Gitxiegia ta larregia beti kaltegarria».

ARGIBIDE DIRA

Oneik eta beste asko dira, guk Bizkaiko euskaldunok doguzan errefran zarrak, 1596-garreneko errefranak, Mogel, Añibarro, Arrese Beitia, Azkue, eta beste Bizkaiko eus-kal idazleak argitaratuak doguz, eta bene-benetan argiratzten deuskue gure pentsaera, gure oiturak eta gure euskaldun jatorkizuna.

Beste barik, amaitu gura neuke au esanik:

«Beti ikasten, beti ikasi-gurean, ta beti ikasi-bearrean da gizonaren Bizitza» (Mada-riaga Bartolome).

MUNIATEGI ASIER

EUSKATZAINDIARI EPAIKETA

1982 - Otsaila - 12'n

Adiskide on Dionisio,

Lengo astelenan, il onen 8'n, jarrita nengoala zuri eskutitz bat idazteko, idazkizain edo karteroa etorri zan, zure liburu barria'kin. Zure eta Latiegi Bixente'aren liburua. Eta zelakoa bera! Bat-batera irakurten asi nintzan. Lenengo egunean, 80 orrialde inguru irakurri nebazan. Eta, atzo gabeen askenengo orrietan nebillan.

Zorionak biori biotz barrutik, Zuri eta Bixente'ri. Lan ederra egin dozue. Zenbat aipamen eta agiri! Zuk egin dozun lana, ixilla eta zailla, or geratzen da danok ikusi daigun zelako lan okerra egiten daben «batua» o «el batua»ren buru diranak. Or be, marxismua sartu da, eta zelako indarrakin! Nire ustez, Irala'ren liburu barria eta zuena, dira egun onetako liburu garrantzi aundienetakoak Euzka-Erriarentzat.

Lan gogorra egin dozu, ainbeste paper eta dokumentu batu dozuzalako. Egun onetan emen euki dodaz adiskideak, eta daneri zuen liburuatzaz itz egin deutset. Eta zelako Euzkera goxoa Bixente'na eta zurea. «El batua» irakurtzeak igoiña emoten dau, eta zuen euzkerak bere goxotasunakin egiazko poza eman deust niri.

Orain, liburu ori zabaldu egin bear da. «Propaganda»aundia egin bear dozue gure erritarren artean.

Nire anai Domingo'k be auxe berau uste dau. Pozik irakurtzen dago bera be.

Lotsagarritzko gauzak jakin dodaz liburua irakurteakin: Nun geratzen da Euzkaltzaindia? Nun Mitxelena? Ostera, zelako lan ederra egin daben eta zenbat eroan daben Labayen Antonio'k eta batez be, Lekuona Manuel Jaunak.

Zuen lana jarraitu egin bear da. Batez be, Bizkaitarrak eutsi bear dabe euren euzkera gordetzeko.

Nik ezer egin-al-baneuke, esan. Bear bada, izparringietan idatzi neike artikulu bat onetzaz. Lengo astean argitaldu bear zan Bilbo'n eta Donostia'n - Irala Antonen liburu barri batetzaz, baiña ez da agertu. Ez dakit zergaitik, laster jakingo dot. Eta gero zuen liburuatzaz idatziko dot.

Artu ba biok, zuk eta Bizenti'k nere pozagurra eta eskerrak!!

Benetan biotzaz.

ALBERTO ONAINDIA

«Zuzendari jaunak:

Zuek zuzendari zaituen aldizkarietan —El Correo Español —El Pueblo Vasco, 1982'ko zezeillaren 24'an— argitaratu zan «Agirre Lendakariaren irakatsi bat» (Una lección del presidente Agirre) nire idazlana.

Argitaratze orretan bitan agertzen da «lehendakari» berbea «h»gaz. Ori ez da gauza aundia, baiña nik bialdu neutzuen idazki jatorrean ez egoan olako izkirik.

Zalantza barik, gogorik onenagaz, baten batek uste izan eban «h»gaz nire idaz-lana osotu egiten zala. Baiña sarritan izki bakar batek gura ez dan esangurea izaten dau.

Izki orrek euzkerea idazteko bideetan jakitun diran asko berotu egiten dauz gaur. Nik, mugearen egoaldean diran euskaldunentzat idatzi dodanean ez dot sekula erabilli izki ori. Emen bizi nazen lekuan, Donibane Litzun'en, Laburdi'n, izki ori idatzi egiten da eta dunduri gozo ta eres-bidekoa dauka. Baiña ez olakorik egoaldean.

Antza dagoanez «H»a batu-zaleen burruka bideko erpiña da eta jakiña da baita, «H» ori ETA'ren jarraitzaileen «kultura iraultzaren sinbolo plastiko»a dala. Gaiñera, D. Manuel Lekuona Euzkerek dauan idazle guztiz ezagun eta itzaltasunez beteak diñoanez, «Atxeza-leak Euskaltzaindiaren Lendakaritzatik bota egin ninduen izen-bako idazki lotsagarri bat bide zala». Eta nik gurago dot D. Manuel'en alde egon, bere guzurrezko salatarien alde baiño.

Oraintsu agertu da Gipuzkoa'n gai oneri buruz liburu oso irakurgarri bat: *Euskaltzaindiari epaiketa*, Oñatibia'tar Dunixi osagilleak eta Latiegi'tar Bixente abadeak idatzita. Biak dodaz lagun on eta maitagarriak eta irakurle guztiai eskatzen dautset liburu ori irakurri dagiela.

Nik ez dakit Euskaltzain'en batek liburu oneri erantzunik emongo dautson. Oñatibia ta Latiegi liburu onen idazleak egin daben lan egizko, sakon, billatzaille onentzat ez dot uste isillik gerateza erantzun ona izango danik. Nik ez dot ezagutzen gaur iragarten eta irakurteko eskintzen dodan liburu onen besteko jabetasuna arlo onetan daukan beste lanik.

Eskerrak zuzendari jaunoi. Adiskidetasunez agurtzen zaituet.

A. O.»
(Diario Vasco)
1982-3-4

AMOMAREN IPUIÑA

Baserrietakoak edo erri txikietakoak garrenok, andietakoak direnen gandik aurtzaroko ikaspen (esperientzi) ezbaridiñak daukaguz.

Geure aurtzaroko oroipenik geienak baserriarekin, soloekin, abereekin eta geure basoetako ariztiekin, pagadiekin, eukaipuekin, pinadiekin eta abar alkarzen dira.

Oraintxe batera urten gura dauen arteko bat datort gogora.

Oporretako egunetan oitura zan lez, bein baten gure amoma maitea, gure anai bat eta ni beientzat eta txaalentzat bedarrak igitazen joan giñan.

Gure amoma maiteak, urrengo egunerako bedarrak zela edo alan igitatzen, gu jorran andiz genbiltzala, ikusirik ipuin txiki au kontatu euskun:

«Mendez mende, neguan, gure baserrietan egiten ziran lanen artean gogoererenetako karegintza izan zan.

Naiz eta aurki gure arbasoak, PHa edo Sörensenen exponenteari buruz, ezer jakin ez, lurraren garraztasuna edo samintasuna neurtzeko, oar ikaspenez, soloentzat, kare illen ondorio onuragarriak ezagutzen ebezan.

Oraindik karabi-zulo batzuk irauten dabe gure baserri-inguruetan; beste batzuk aienatu dira eta lekuko toponimian irauten dabe.

Karabi-zuloak 3 edo 4 neurkin zabal eta 5 neurkin sakon eukezan zulo batzuk ziran. Aldapa baten egiñik, barruan arriz gaineztatuturik egozan.

Areen ondoan, aldaparen beeko aldetik, neurkin bateko zabalerea eta neurkin erdiko goiorea eukan zillo bat eben. Zillo au sua zirikatzeke zan, eta errautzak eta karea naiko erreta ateratzen ziran; aren izena, karabi-ataka zan.

Karabi-zuloa, gure mendietan ain ugari diran aritzondoan, pagondan, gaztainondan, eta ebarren, enborrez eta karearritz azal-txandaka, beteten zan.


Sua karabi-atakatik biztuten eta zirikatzen zan.

Onelan egundako kare bizia ur kopuru andiz amatau egin bear zan eta orregaitik karabiak erreka edo errekatxo baten urbiltasunean egon bear eben.

Karabi denboraldia amaitu ondoren, karabi-eztegu izenekoak, janedanak, ospatzen ziran.

Aita eta aren seme bat barruan egozanean lanik gogorreanean, onek esan eutson bere aitari: «Aita, aurtan karabi bi egin bear doguz». Eta aitak erantzun eutson lakoniki ari: «Seme: Lenengo, bat».

JUAN LUIS BARTUREN



Bilbotar euskaldun batzuek "La Oración de la Iglesia" euskeratzeko eskatu dauste. Emen dozu, ba, eliztar euskaldun orrek, liburu atsegingarri au, zure barruak Jaungoikoagaz, zeruko gure Aitagaz, alkarrizketan jardun dagian.

Erderaz —gazteleraz— zazpi argitarapen atara dabez, millaka ale. Arein artean liburu au ainbeste zabaldu ba'da, ez al-da egoki etorriko geuretzat be, euskaldunontzat?

Liburuaren azken-aldean, Iztegitxoia dator, berba gutxi-erabillien esanaiaz.

Liburu au be, kristau-bizikeran aurrera egiteko izan dakizula, euskal-eliztar orri.

KEREXETA

ANAITASUN - BILLA

Bakartadean, bizi naiz eta
daukat biotza tristerik,
askatasuna billatzen nabil
emen ezer lortu barik.
Zeozer asmatu, gura neuke gaur
ez lortutzeko kalterik
gu geuk Euzkadi askatuarte
ez da izango baterik

Bakea lortzeko gaur Euzkadin
bear da: alkartasuna;
geure alkartasuna lortzeko:
benetazko maitasuna.
benetan maitasuna lortzeko
egizko anaitasuna,
anai izan ezkerro, orduan
izango Askatasuna.

Baiña geurea, ta betikoa
au da ni-neure galdera:
zein da gure betiko izkuntza,
obeto, zein izkuntz-era?
geure eskuetan dago, orain
geurea dogu aukera,
baiña dana dala, mesedez ba,
salbau dagigun EUSKERA,

Bizkaiera edo batuz, baiña
ez dot gura asarrerik,
anaitasunaren billa nabil
ba, ez dago olakorik
geure askatasuna lortzeko
geu ariñago il barik
ez dago ta oraindik erririk
ez ba dau bere izkuntzarik.

Muniategi-tar Asier

POZGAI TXIKIAK

Maitez lurrinduriko
pozgai txikiak dira
biotzaren obariak;
bizitz igaranezko
goigune gelgarriak
datozenak arira.

Esku zabaldurazko
irripar alai baten
laztandura samurra;
anai besarkadazko
erabide onaren
alkartasun agurra.

Bizitz oro bizia
da mendi, ibarretan,
izantz zoragarria
itxaso, ibaietan;
ezkutu gelgarria
egungo goiberatan!

Erein itxaropena
bideko arantz-arte;
erein bai euskal sena
ta, onar aldan bestez
zure anai, gizona,
bakoitzaren izatez.

Kolkoratu egalak
beren eder ta onez,
gauza apal bizien
argitasun izpillak;
lainkozko zabaldien
emoi ta aintzamenez.

Muniategi-tar Sabin.

EUSKEREA ZELAIRATZELO

Adimen argiz ekintzatuz
aberria ta gizartea
suspertu, erabidetzeko
eskuak, biotzak bear doguz
gizatasunez jasotzeko
gure ele kutun maitea.

Euskerea zelairatzeko
bere sustraiak osasunduz,
esku ta biotz, benetako
ardura aundi maitekor bat
gure egin-poza azalduz
jarri bear dogu eredutzat.

Bear doguz berba biziak,
etorki eder egokizko
iturri garden ugariak
benetako asmo zintozko
goi-egitura gurgarriak
edonora aurkeztutzeko.

Itxaropen larrosak loran
berarizko sen usain gozoz,
gure alegiñen baratzen
maitetasun emoitza beroz
sortuak, margo ederretan
bizia alaitzeko asmoz.

Muniategi-tar Sabin.

BOST ORDUKO IKASTAROA

CURSILLO INTENSIVO DE CINCO HORAS

NOIZ UZTAILAN
EGUNAK 1'etik-30'ra
ORDUAK GOIZEZ - 9'etatik-2'etara
ARRATSALDEZ - 4'etatik-9'etara
AZTERKETA Taldeak eta mailak aukeratzeko ikasleak azterketa
bat izango dabe.

AZKEN AZTERKETA.—Betetzea derrigorrezkoa izango da ikas-
taro hontan parte hartu gura daientzat.

FECHAS JULIO
DIAS 1-30
HORARIO DE MAÑANA: 9-2
DE TARDE: 4-9
EXAMEN Habrá un examen previo para adecuar mejor el
grupo donde pueda estar.

EXAMEN FINAL.—Es condición imprescindible para poder
participar en el Cursillo realizar un examen final.

MATRIKULA: 4.000

BULEGO ORDUAK 5'etatik-9'etara
URRUTIZKINA 4.43.49.94
ZUZENBIDEA Avda. San Adrián-kalea
Parrokia
BILBO-3
MATRIKULA EPEA Orrilaren 3'tik
Ekainaren 25'era

TXARTELA BETETA EKARRI

HORAS DE OFICINA De 5 a 9 de la tarde
TELEFONO 4.43.49.94
DIRECCION Avda. San Adrián
Parroquia
BILBAO-3
PLAZO DE MATRICULA Del 3 de Mayo
al 25 de Junio

TRAER CUMPLIMENTADA LA FICHA PERSONAL

BITARAKO ADIZKERAK

AGINTE-ERA

Aditzaldi onetan be ba-dagoz bitarako adizkera batzuk. Ona emen:

Puxana'k:	eroan BEIZUE	1. ^a llévenlo ellos a V.
		2. ^a llévelo él a vosotros

Azkue'k: BEIZUE ta BEITZUE, bietara.

Zelan banandu emen esanaia? 2.^a BEIZUEE edo BEITZUEE eginda? Baiña azken oneik beste esanai bat dabe: llévenlo ellos a vosotros.

* * *

Beste adizkera bat: **Arei zerbait** eroan (NOR-NORI-NOK)
Emen be bitarako adizkera bat agertzen da:

Azkue'k		llévenlo ellos a él
eta	eroan BEIOE	
Puxana'k		llévelo él a ellos

Aurrekoetan egin doguna egin daikegu emen be: **Ari** esateko, **O** aditz-atzizkia erabili; era **arei** esateko, **OE** erabili bearrean, **E** erabili, Villasante'k dakarrenez (mako-barruko-etakoak izan ezik):

AREI
(nik eroan DA(G)IEDAN edo DA(G)ITSEDAN)
zuk " E(G)IEZU
arek " BE(G)IE = BE(G)ITSE («areik zerbait eroan» be BE(G)IE da-ta)
(guk " DA(G)IEGUN edo DA (G)ITSEGUN)
zuek " (E(G)IEZUE
areik " BE(G)IEE (Puxana'k emen EIOEE dakar, baiña irar-utsa da).

Urrengo zenbakian beste zer bait.

KEREXETA

INTXAUSTI'tar ARTURO ERESLARIA

- Begoña'n, jaioa orain 90 urte.
- Euskalerrian eta inguruan ereslaririk onenetarikoak.
- Urte askotan Bilbo'ko eskoletako eres-arduradun.
- Bilbo'ko Abes-Batzaren zuzendaria.
- Bilbo'ko Eres-Etxeko Irakasle.
- San Antón'en 60 ortetan organu-jotzaile.
- Eresgille ona: Euskeraz naiz latinez mezak, abesti asko, sei gabon-abesti bigun...
- Eres-Txapelketetan maiko edo epaile.
- Euskal-kutsuzko abesti eder askoren artean «Begoña'ko Andra Mari, Bizkai'ko Zaindari» dau berea.
- Guridi, Zubizarreta ta antzekoen kidekoa.



OMELDIA IZANGO DAU
LASTER

Euskalerritik Mundura Begira

«Malvinas» ala «Falkland»

«Malbinas ugarteak gureak dira, —diñoe arjentindarrrek—, Edestiak guri ematen bait dausku arrazoia!»

Neretzat, oso gutxi balio daun arrazoia da «edestiaren arrazoi» ori, geienetan «otso lapurraren arrazoia» besterik ez bait da izaten. Ala ta guztiz kusi dagigun zer erakusten dauskun Ugarte aietako edestiak.

XVI mendearen azkenean izan ziran aurkituak 1952'garren urtean. Inlanderriarrek aurkitu ebezan: Jonh Davis itxas-kapitanaren mariñelek. Ordurarte, an lurrik ba-zanik ere ez zekian inork.

Bi urte geroago, inglanderriarrek oster a ugarte aietan: Sir Richar Hawkins ospetsua berbera. Onek «bataiatu» ebezan aurreneko aldiz: «Maidenland», «Birjintalanda»; inglanderazko «maiden» ori euskeraz «neskutsa», «birjiña» bait da. Elisabete erregeiñ neskazarraren birjintasunaren omenez ipiñitako izena izan zan ura.

Gero, 1764 arte, 72 urtetan lurralde askotako jendeak iritxi ziran aruntz, eta ba-koitzak izen berri bat eman eutsan lurralde ari: Sebal olandarrak «Sebaldins»; Cawley inglandarrak, «Papys Islands»; Jonh Strong inglandarrak «Falkland Inslands» (itxas-ibillaldi ura egiteko diruz lagundu eutsan Falkland' deko Bizkontearen omenez); Frantzi'ko Normandi'tik etorritako bale-arrantzaleek, «Isles Anican»; Roggewein flandarrak, «Belgika Australis» edo «Ego-Belxika». Ostera berriz mariñel normandita-

rrek, «Neuves Isles Saint Louis», edo «San Luis'en Ugarte Berriak» eta azkenean, Bugainville frantziarrrak, «Isles Malouines», Normandi'ko Saint Maló izeneko uriaren omenez; angoa bait zan bera, eta kai artatik etortzen bait ziran arrantzale normanditarrek. Gero, espainiarrek izen ori «Maluinis» biurtu eben. Eta azkenean, «Malvinas».

1964'garren urtea zan. Bugainville, bertan gelditu zan, eta baita mariñel-sailtxo bat ere berekin. Aiek izan ziran, —ez luzarorako—, ugarte aiek izan ebezan lendabiziko biztanleak.

Ez dirudi, orain artean beintzat, «Edestiaren Arrazoiak», Arjentinari geiegi laguntzen dautsonik.

Ez eben frantziarrek pake aundirik an izan, urrengo urtean, Inlanderriaren izenean Jonh Byron'ek artu bait ebezan ugarteak. Ala ere bertan jarraitu eben aiek, baita Espaini lurralde aren jabe egin zanean ere, Espaini'ko erregearen eskariz, Frantziako erregeak aginduta, aldendu bear izan eben arte.

Urte bete besterik ez ziran espainiarrek Malbinetan egon, inglanderriarrek uxatu bait ebezan andik 1771'ean. Ugarteak, jenderik gabe gelditu ziran 50 urtez. Eta orduan 1829'an agertu zan an Arjentina'ren izenean Vernet alemana, lur aien jabetasuna jasotzera. Arjentina'k orduan erabilli zuan arrazoia: Espaini'ren erentzi edo ondare lez,

bereak ebazala ugarteak. Arrazoi motela, Espaini ez bait zan urte baten epean besterik, indarrez artu eta indarraren faltaz galdu ebazan, ugarte aien jabe izan.

Vernet eta bere arjentindarrak ez ziran an bi urte besterik egon, 1831'ean, vernet orrek Laterri Alkartuetako iru bale-ontzi baitu ebazelako, «Lexington» guda-ontzi indartsuak, uxatu bait eban andik bere morroi guziekin. «Terra nullius» «Jaberik gabeko Lurra» aldarrikatu, proklamatu, ebezan Laterri Alkartuek lurralde ura.

«Jaberik gabeko Lurrak»? Ez jauna. Gu gera lurralde oien jabe, ez bait dogu añoiz jabetasun ori inoren eskuetan itzi», oi u egingo dau orduan Inlanderriak; eta mariñeltalde txiki bat bidaliko bertara. Bereala joan ziran arâ, erlijiozko askatasun billa, gaur an bizi diran 2.130 giza-kumeen asabak. Inlanderriarrek dira an gaurko jende oiek danak jatorriz, eta 160 urte ba-daramazkite bertan.

Nori emoten dautso Edestiak arrazoia? Gizon-emakumeen arazoekekin ordea ez da orrela jokatu bear. Eta galderak zuzen egin bear dira:

Malbinak norenak diran? Bertan bizi diran jendeenak. Bertan bizi diran jende oiek nongoak izan bear daben? Berak gura daben tokikoak. Jende aiek naiz gutxi izan, erri bat osatzen dabe, eta erri batek ba dau bere buruarekin zer egin erabakitzekeo eskubidea.

BALENDIÑE ALBIZU,

EUSKAL OLERKARI

Euskalerrian ba-doguz, beste edozein alderditan lez, emakumeen artean diñot, neurtitz dotore bikaiñetan idazten dabenak, euren biotz-sentipenak eta adimen-sorpenak txukun-txukun adierazten alegitzen diranak. Oneitakoa dogu egunokaz, Karakas'tik etorrita, ni ikusten urreratu dan Balendiñe Albizu andrea. «Emakume, ama, olerkari... Iru itz gozo. Irurak elkartuta, Balendiñe», diñosku norbaitek.

Bizitz-zeaztasunak.— Gaur Karakas'en bizi dan arren, zumaiarra dogu emakume argi au, eta berak kontau eustanez, interesgarriak dira bere bizitz-atalak.

«Zumaiko erri politean jaio nintzan —esaten daust—, 1914'garren urteko iraillaren 18'an. Nere ama, Manuela Aizpurua, Endañeta base-rian jaio zan, eta aita, Juli Simon Albizu, Zumaikoa, itxas-gizona, patroï bulartsua, itxasoarekin amaika burruka egindakoa. On eta leiala, zintzo jokatu zuan bere bizitzan. Ama... esan leiken dena da gutxi nere amagatik. Ain zan ona! Goxo samur maitekor azi zituan bere sei seme eta ni alaba bakarra, zazpi. Maitatua nintzan, nola ez! Nere aurtzaroaz beñere baiño geiago gogoratzen naiz gaur; zoriontsua izan zan, aberastasunik ez ba'gendun ere. Maitasuna eta eguneroko ogia etzan faltatu izan beñere gure etxean. Azten ari giñan bezela nere gurasoak seme-alaba on, jator eta zintzoak azi eta ezi zituzten. Arro esan dezaket au. Bai orixe!».

Bere gazte-denpora odei baltz bage igaro eban. Anai-arreba guztiak abertzaleak ziran, eta abertzaletasunak eskatzen dauana beteten ekienak; batzokiko egin-bearrak aurrera eroaten ez ziran atzean gelditzen. «Onelaxen —diño— geure artean pozik bizi giñan gerrako egun madarikatu ura eldu ta guziok sakabanatu giñuzten arte».

Gerreak bai makiña bat euskaldun leial sakabanatu zituan, ekaitz aize-zirimolak osto bellegituak lez. Agorraren 24'an urte eban Balendiñe'k Zumaia'tik bere anaiakaz. «Itxas-ontzi batean,

denak gizaseme, ni bakarrik neska» diñosku berak. Ondarru'ra eldu ziran gaberako, eta gizonetzko arei «gaba igarotzeko neretzat itxasontzia toki egokia zanik» ez iruditzen-eta, etxe batera eroan ebezan bera ta bere anai txiki Karlos.

Urrengo gabea, «facistak» an zirala begitandurik, zalaparta ez txikia sortu ta neskatxaren nebak oni dei egiteko astirik bage, Ondarru'tik aldendu ziran. Balendiñe an geratu zan noraezean, zer egin ez ekiala. Baiña, ontan, Ondarru'ko zubi gaiñean jarrita egoala ona nun entzuten dauan berebil baten galga-otsa, eta batbatean «Balendiñe!» deia. Ixaka Mendizabal zan, Balendiñe'ren ezaguna. Anaiakaz zer jazoten yakon eta aurrera jarraitzeko asmorik ez eukala esan eutsanean, Ixaka'k erantzun eutsan: «Ez, arren, olakorik!» Bera Bilbo'ra joian eta «kontentzitu egin nindun berakin Bilbo'ra jun nadin».

Ondoren berak: «Bilbo'n ba-nekien otel Euskalduna'n Tolosa'ko lagun batzuk zeundela eta ara abitu giñen; poztu ziran aiek ni ikustean eta beraekin gelditu nintzan. Lau egun igaro ta nere anaien barririk ez; egun ontan «Sabin Etxea»-n bazkaltzen ari giñela ezagutu nuen Mundaka'ko Junta munizipaleko lendakari ta Tolosa'ko lagun laguna zen Juan Manuel Bilbao. Mundaka'n, nai ba'nuen, lana izango nuela esan zidan, Asistencia Sozial'ean edo, eta bi bider pentsatu gabe Mundaka'ra juan nintzan. Antxe igaro nuen guda denbora, arik eta Bilbo'ra naitanaiez juan bearra eldu zitzaigun arte».

Bilbo galdu ta Santander aldera jo eban Balendiñe'k beste askorekin. An, Eusko Jaurilaritzaren etxean ezkondu zan Mundaka'ra eroan eban Bilbao mutillagaz. Ribadesella'tik joan ziran Frantzi'ra, Bidarte'n, «Larrosere»-n, Euzkadi'ko Jaurilaritzak gaixoentzat eukan etxean egokiturik. Emen jaio yakon bere lenengo seme Josu, 1939-XII-12'an. Geroago, Marsella'tik urten eta Venezuela'ra jo eban beste askogaz, 1943'garren

urtean Ciudad Bolívar'en bizi izaten jarririk. Emen urte bi emonda, Caracas'era jo eban, eta ementxe bizi da gaur, lenengotan otel baten jaube zala ta orain aspalditik olako buruauste barik, atsedean patxadazkoan.

Lau seme-alaba daukaz, batzuk ezkonduak eta beste batzuk karrera ikasten. Maite dau bere jaioterria ta al dauan guztietan onuntz jo io dau illabete batzuetarako. Berton daukazan adiskideak agurtzea eder yako, baiña ez bere erriak gaur daukan egoera larria. Euzkadi bakean, alkar-maitasunean, langille ta zoriontsu ikusi nai dau.

Olerkari.— Soñez ez, baiña arimaz urduri dozu Balendiñe. Jainkoak, bere erriak eta familiak kezkatzen dau oso. Bakarrik lez ebillen munduz mundu; bere ama an geratu zan Zumaiñ'n, itxas egalean, alabaren oroiz mindua. Eta aita, bere aita ona! Benetan samiña, gazte-gaztetatik erria itxi bearra! Ondoan zituan senarra ta umetxoak; baiña orrez gain ba-ditugu beste biotz-zati batzuk be...

Guzti onek, oster, gu olerkari biurtzen. Utsune bat dogu barnean, eta uts-une ori zerez beteten? Barruko zer ori ornitzeko, olerkiari emon eutsan zumaiar andra zintzoak. Onela diño berak «Olerkia» deritxon lantxoan:

Sarritan nere baitan	Nere biotza askotan
auxe det esaten,	egoten da egarri,
zuregatik ez balitz	zure iturrian det
zer egingo nuken!	ur gozo ugari.

Zer ete da olerkia? Esanda daukat: «Barne garraxia». Eta Balendiñe'ren olerkiak, lau-lau ta zentzunez osotuak, barne intziriak dira. Au be egoki datorkigu: Ori'ko txoriak Ori'ra egaz. Orobata onek be, bere sorterrira egaz: Euskalerritik urrun aurkitu arren, aren begiak, aren oiuk onantza datoz. Itxas-orratzak iparrera aier.

Noiztik dogu olerkari? Berak onela: «Ciudad Bolívar'en negoela olerkiari eman nion. 1944 urtean Caracas'ko Eusko Etxea'n, euskal idazleen sariketa zala-ta, «Nere urtearen lau aldiak» bialinuen sariketa ortara. Beste askoren artean Jon Andoni Irazusta ere sartu zan sariketa artan eta oneri eman zioten lenengo saria, eta neri bigarrena. Euzkadi aldizkarira nere olerkiak bialtzen jarraitu nuen».

Baita argitaratu zituan bere olerkiak Sabindarrak argitaratzen eben «Irrintzi» aldizkarian be. Gaur oraindik ango «Euzkadi»-n azaltzen dira zumaiarraren bertso lanak. «Euzko Deia» irrattian be ez ditu saio gitxi egin, or-emen emonak ditun itzaldi ta alkar-izketa gozoak aitatu barik itxita be. Caracas'en euskal kutsuzko zer-edo-zer ospatzen danean, an esku-artuko dau gure Balendiñe'k be. Emakume maratx aiurri onekoa.

1972'an, or-emen sakabanaturik ebiltzan poesi egalariakaz eta labatik arako beste batzukaz, «Nere Olerki Txorta» deritxon kopla-liburu atsegiña argitara emon euskun. Zarautz'eko Itxaropenak irarri eban German Azurmendi'ren azalargazkiz eta Irizar'tar Sabin'en itzaurrez apainduta. «Gazte-gazterik bere sorterri maitea utzi bearra izan zuan..., geroztik, bidezkunde luzea asi zan beretzat. Euskalerrri ta atzerri makiñatxobat ikusitako emakumea. Biotz xamur ta esku zabaleko emakumea. Beti agirian ditu euskal oiturak, naiz ta Euskalerritik urrun arkitu. Balendiñe'n etorria, ez da nola-naikoa, ta bere oarke-tak sakon ta mamitsuak dira benetan». Aren olerki samur, guntsu ta errezak irakurri ondoren, nik be Irizar'en eritxia onesten dot osooan.

Otoz-otoko edozein gauzaren aurrean dardar egin oi dau biotzak. Eta dardar orreik, garraxiak dira Balendiñe'ren olerkiak. Lau zati daukaz «Nere Olerki Txorta»-k; gomutapenak dira lenengo zatikoak, bere ama, bere erria, jaiak, senideak; ipar eta egoaldetik, ango eta emengo gizonak eta jazokunak abesten ditu; nere biotzeriak, amesak eta maite-miñak datoz sail onetan, Heine ta Campoamor'en idazkera sotillean; gogoketak azkenez, bere adimen argiak emondako frutu elduak.

Ezin ukatu daikegu amaren, urrun aurkitzen dan amaren gomuta. Balendiñe'k «Zure oroiz, ama!» deritxon lanean bipilki kanta eban, 1944'garren urtean.

Ainbeste urte zu ikusi gabe
gizon gaizkilleen lana,
baña nere biotzaren jabe
zu zera, nere ama lastana!
Itun aldietan ikusten zaitut
eta esaten didazu: «Ene alaba!
zuregaitik otoi egiten
igarotzen ditut egun ta gaba».
—Jarraitu, ama; otoi Jaunari.
Laster elduko da-ta eguna,
zure otoien laguntzen sari
guziok alkartuko gaituna,
Jaungoikoak zure eskari
danak, lortuko dituna.

Ba-dau beste txorta bat laster argitaratzeko, «tropiko lurriñez usaingua, Euskalerrri miñez er-netua. Lore, lurrin, usai, asmo, biotz, amets, errimin, egamin... Eta irudimen egoetan, tropikotik Euskalerrri'runtz, Parnaso zear, ederrez asea», itzaurrean Arozena'tar Andoni'k diñoanez.

Aita Onaindia

H'AK GOTZAINTEGIAN

Egun batzuk dirala, idazki aparteko bat jaso neban. Bilbo'ko Gotzaintegiko «Ekonomi Arlo»-tik etorkidan. Mirarrituta geratu nintzan ango H-ak ikusiaz, euskeraz idaztean.

Nai dozue jakin zenbat H datozen erderaz zenbat euskerazko itzulpenean? Emen, ba:

Erderaz

Hacienda
hemos
han
ahorro.

Gutziz: LAU H.

Euskeraz

Hazienda
beharki-deia
hurrengo
hau (txakurraren aausiaz edo
zaunkaz ez naasteko, antza)
beharki-deiau
behar
zihurtagiria
Zihurtagiriok
behar (bis)
Ahal
hau (bis)
honetara
zihurtagiriok (bis)
beharki-deia (bis)
ahal (bis).
Gutzik: AMABOST H.

Baiña, zer, jaunak? Zoratu egin gara, ala zoratu egin nai gaitue?.

Real Academia Española de la Lengua'ko Antonio Tovar jaunak, argibide ori jakin dagianean, ziur nago eskuak burura baiño gorago jasoko dituana.

Neuk be —gutxiago ez izateko eta «besteak beste»—, idazki-azal au bialdu dot ango **Ekonomi-arlorā**:

Hoffice hof the Hobispado.
(HehuskAraz)

(Oficinas del Obispado)

Hechonomy Department.

(HehuskAraz)

(Departamento de Economía)

Calle Virgen de Begoña, s/n.

BEGONA - BILBAO (6)

Aurrean daukat Fray Joan de Zumarraga'k (1468-1548), Durango'ko seme ta Mexico'ko goigotzaiñak, bere arrebeari egin eutsan idazkia. Esku-idazki onek 350 (iru-reun eta berrogeta amar) berba dakaz euskeraz, eta, erderazko *ch* idazteko izan ezik —oraingo *tx*—, ez dau *h*'rik bat bera be jarten. Zetarako jarriko eban, ba, alperreko izkirik (letrarik)? Alperreko gauzak zikin-ontzira jaurtiten doguz, eta ildakoa, illobira!

Gizon argia ta ospatsua izan zan gure Zumarraga jauna, Mexico'ra irarkola (inprenta) leenengoz eroan ebana (1535). Eta sen onekoa, gainera, sen onekoa.

Auxe esan eban, urrean, berekautan, bere esku-idazkia euskeraz egitean: «Ezagutzen dodaz Mañari'ko ATXAK, baiña ez HACHErik euskeraz».

Oraingo euskaldunok, ostera, karramarruarena: aurreruntz egin bearrean, atzeruntz; euskereari —eta geure buruari— oztopo ta eragozpen geiago ezarri nai, guztion kaltetan. Italiarrak, sei-zazpi H izan ezik, beste H guztiak kendu egin dabez euren izkuntzan. Baiña..., zer dira italiarrak gure aldean? Gu bai jakintsuak eta trebeak (edo «habilak, praktikoak», gaur esan bear danez). Puf!

«TERMINACHOS»

Aurrerantzean, sasi-euskerazko «terminachos» izenekoen billa asi bear dot; baiña ez dodaz batuko liburuetan, aldizkarietan eta egunkarietan datozanak —Aita Muji-ka'ren iztegia baiño liburu lodiagoa egingo neuke-ta—, denda, Banketxe, Udaletxe ta osterantzeko etxe agiritan agertzen diranak baiño.

Ain zuzen be, gaur Banko batera joan bear izan dot, eta auxe irakurri dot leiatilla baten aurrean:

COBRO DE LETRAS

EFEKTU KOBRAKETA

Nigaz batera basarritar eldu bat egoan an, eta nik, «Cobro de letras» eskuaz estaldurik, «Efektu kobraketa» zer esan nai leikean itandu dautsat. Eta arek:

—«Kobraketa» ori ulertu daiteke gutxi gora-beera, kobratzen Bankuetan ondo be ondo dakie-ta; baiña beste berba ori —*efektu*— iñoiz be ez dot entzun, pelota-lekuan izan ezik, peloteari burpilla emoterakoan. Dirua beste bati emoteke-edo...

Eta nik ari:

—Zer esan nai dozu orreaz? «Peloteo de letras»-edo?

—Orixe berori!, orixe berori! —baserritarren eran-tzuna.

Gure barre-zantzoak entzunik, diru-paperak be ikaraka asi dira.

Bitartean, bizkaitarrok agoa zabalik gagoz: Demokrazi-aldi onetan, «el batúa»-ren bidez, «terminachos»-en erregetzara aldatu gara. Ez da aurrerapide makala, gero!

EZKUBARATZ

ARRAIN SAINTSUAK ETA GIARTSUAK

Arrain kontua erabiltean, sarri egiten dira onelako itaunak: Zein da egoskorrago, erre-zago dijeriduten dana, bei okela ala arrai-ñaren aragia?

Onetan egin diran ikasketak ondoren edo erakutsi au emon izan dabe:

Arrain zuri edo giartsua, ordu bi ingurura egostuten (dijeriduten) da.

Arrain urdin edo koipetsua, iru ordutik laura. Eta bei okela lautik bostera.

Jakiña, neurriz eta gizon lez janda.

Astakeriak egin ezkerro, norberak artu bear ostikadak, urdailleko min, naigabe, pixu, aize eta astuntasunekin.

Zein dan arraiñik koipetsuena?

Onetan aituak aingira agertzen dabe, erderazko anguila, martina. Angulakia da. Euneko 28. Ordez itxas-aingirak, kongrio famolikoak, ega luze edo atun zuriaren antzera, euneko sei inguruan ibiltan dira. Bardintsu salmoneteak.

Eta len esan dogun aingira motak, gorabera andia eukiten dabe euren saiñetan. Ugaritze edo sortzerako aldietan, euneko iruraiño beratzen jakoe.

Bardintsu gertaten da izokinagaz (salmoiagaz). Euneko amabi inguruan ibiltan da.

Izokina (salmoia) iru alditan bereiztuten da. Izokin kumea, edo gaztea. Izokin semea, ala daitzen jako andiari. Eta izokin izokia, au da, etzaldea egin ondorengo. Azken au

bere koipetan euneko bateraño beratzen da etzalde ondoren.

Ega-labur (zimarroia), berdel, sardiña, antxoa, akula eta abar, euneko amar-amabi bitartean ibiltan dira auren aldi onean. Alaz eta euneko bostera be beratzen diran denporak eukiten ditue.

Arenkea, euneko zortzitik ogeira bitartean ibiltan da.

Gure atuna, ega-luzea, albakora, euneko sei inguruan ibiltan da.

Oillarra, languadua, platusa, barbu eta antzekoak ez dira euneko bitik goratzen.

Aitzarrain edo kabrak, 1,50% inguruan. Itxas sapuak koipe gitxi eukiten dau, 0,1 tik % 1'ra bitartean.

Abadixo eta makallau freskuak, % 0,5.

Lebatzak % 0,3.

Ez dakit nundik atarata, baiña Buska Isusi'ri itzaldi baten entzun neutsan, kolesterola sortzen dana arrain bakarra, kabratxoa dala.

Eta euskaldunok ain maite dogun besigua?

Saintsu edo giartsua, edo ta urdin eta zuri artean, bien bitartean sartzen da besigua. % Bitik bostera bitartean ibiltan da. Neguan saintsuago, koipetsuago; udabarrian giartsuago. Origaitik esaten da besigua neguan arranbarrilan (parrillan) erreta gertu bear dala eta udabarrian brixiduta.

Agustin Zubikarai

GURE LUR

Billa nabil lurrean,
erlea ezttan lez
loraren gaiñean.
Gizadia zabal da,
baiña Euzkadi nai dot
egizko oiñean.

Nire euzko odola
ez da gururrezkoa...

ain zara maitea...!
Zure sorrera, nun, dan...?
arkaitz garbi artean
dozu itz betea.

Zelan eratu ziñan
enda ur gardenetan
nortasun garbian...?
Mendi ta ar-tzuloak

eztia al erien
Aitorren lurrian?

Norluzendu zinduzan
giza bizitza sortzen
bas-idi artean...?
Nor ebillen izketan
euskal gizonak sortzen
mintzaira gurean...?

Ain maitagarria zan
bakardade aretan
bizi egarria...!
Euzkadi agertu zan
beren eskubidetan,
lur arrigarria.

P A U L I N

Senar - emazteak (IV)

Senar-emazteak euren etxeak itxita sendi barri bat, kabi barri bat egin dabe.

Eurek egin bear dabe sendi barri onen zoriona, euki edo euki ez ondorengorik.

Zelan, egin, zelan sortu zorion au? Lenengo ondo ezagutu alkar. Alkar-ezagutze au bear-bearrekoz da. Lenengo egunetako maitasuna otzitu dedin, ainbat akatz agertuko dira bietan.

Akatzok ez dira ikusten eta agertzen sarritan ezkontza-aurretik. Maitasunak begiak itxi dagiz. Gero baiña oso-osoan agertzen da gizon-emakumea. Orduan sortzen dira eragozpenak. Orduan akatzak, susmoak eta laztasunak.

Zail senarrak emaztea ondo ezagutzea ta zail emazteak senarra sakonkiro ezagutzea.

Emakumeak bere izakera berezia dau. Bardin gizonak. Ezbardiñak dira gauza askotan. Ezagutze biok oso gatzak dira ta ezagutze bearrezkoa izan bakez bizi al'izateko.

Senar-emaztearen banaiak asko ta aundiak izan daitekez. Sortzetikoak, sendikoak. Etxe-barruan bakea ta zoriona izateko ezkutatu egin bear banaiok. Ixildu-ezkutatu akatzak. Izakera bigundu ta eztabaidak uxatu. Bestearen alde ona bakarrik ikusi ta alde txarra ez ikusi egin.

Alkarganako zintzotasuna be bearrekoa zoriona nai ba'da. Zintzotasun-ez onek zenbat zoritxar sortu-erazo oi dauan.

Emaztearen biotzak senarrarentzat bakarrik izan bear dau, senarrarenak orobat emaztearentzat bakarrik.

Biotza beste bateri saltzeak etxeko bakea ta zoriona ausi oi ditu.

Alkarri egindutako itza da ezkontza. Itunbena bete egin bear da, ezin ausi daiteke. Beraz etxe-barruan batasuna, zintzotasuna, maitasuna, zoriona ta bakea nai ba'dira, alkar lagundu, biotz ona agertu. Ezkontza-bizitza bake-leku ta zorion-bizitegi izango da orduan.

Sendi - bizitza (V)

Sendia eskola da umearentzat. Bertan egin bear da gizon.

Sendi-bizitzak garrantzi aundia dau umearen geroko bizitzari buruz. Lan au aita eta amak egin bear dabe. Enparauak lagundu. Aita ta ama aurrenengo. Zer entzun, zer ikusi, orixe ikasi ta egingo dau umeak.

Sendi-bizitza bere nortasuna egiñaz doa apurka-apurka.

Sendiko lenengo urteak garrantzi aundia dabe umearentzat.

Aita ta ama dira dana umearentzat. Areik zer esan auxe umeak. Areik zer egin, axe umeak.

Aita ta ama ispillu bezala dira umearentzat. Au olan-da, etxeko eskolak irakatsi onen kabi izan bear dau.

Etxea maitasun, bizitza, bake-bizitza, sendi-bizitza, lan-bizitza, zindotasun-bizitza, goimaitasun-bizitza, irakatsi-bizitza izan bear dau umearentzat.

Umeak soin eta gogo dira, gorputz eta arima. Euren elburua zein dan, sakon-sakon sartu bear iake biotzean eta adime-nean. Erlijio-azia erein euren biotzetan.

Landarea lenengotan zuzendu bear da; bigun danean. Bier-etziko etxeak iraun dagian sustrai ta oiñarri sendoak jarri bear iakoz, bestela laster da lurrean.

Gaurko umeak izango dira bier sendi bariak egingo dabezenak. Oiñarri sakondunak ba'dira sendi onak egingo dabez.

Erlijio-oiñarriak ezarri bear iakez txikitatik. «Gizona -Tertulianok esan ebanez— Jainko-zale da barnez eta berez. Bere biotzak Jaungoikoaganuntz dagi.

Egiz esan eban Agustin doneak: «Zeuret zat egin nozu, Jauna, ta nire biotza artega dago Zugan atsedeen izan arte».

Umeak berezko dau Jaungoikoaz itz egi-tea. Beraz lagundu egin bear iako. Bidea zabaldu. Umetan kristau-irakatsiak izan dituanak sendi kistarra sortuko dau.

GOIRIA

ALPERREKO ZEREGINAK

Nere eskuetara eldu yata «JAKIN» aldizkaria, idazti antzera egiña, ikusi batian oso begirragarizkoa, esate baterako, salgai begirakor egiña, edozeñek ontzat artu leiken aldizkari-idaztia, baña apur bat zentzundun garundunak, igundu baño ez daben euzkera irakurriaz, atzekabetutzen daben aldizkari-idaztia baño ez da, zergaitik?...! Alde batetik ainbeste lan alperrekoa aldizkari-idazti ortan opaldu bearra, gero, or agertzen dan euzkera ain oso zalla eta ulergaitzekoa dalako. Nik uste dot zer bait euzkera ulertu ta idazten dodala, or ibilliko naiz gastelar ta euzkera, bardintasunez idatzi ta irakurten. «JAKIN» ortan agertzen dan euskera, eziña dalako ulertu, nerezat eta nire lez, nire inguruko guztiak ere alan diñue, baita ere alan ikusten dot nere ixilleko azterketan, batez ere idaztegi-tan esaten daben lez, urtetik urtera idazti gitxiago saltzen dala ta ori nik esan bearrik ez da, «JAKIN» 22gn zenbakian alkar-izketa baten agertzen da. «—*Zeruko Argia*, esan zitekean, euskaldun guztien aldizkaria zela; eta, noski, orduan printzipio bakarra amateurismoa zen— ta erantzuna da, —Euskal aldizkarien inguruan bi beherakada nabarmen izan direla uste dut: bata, batasunaren inguruan sortu zen zatiketa, H zela eta ez zela; eta gero joera politikoak etorri dira lehen zegoen hura sakabanatzeagotzera—».

«JAKIN» aldizkari-idazti oneri biar dan lez erantzuteko, ingoski asko biar litzakez edo bestela bertan bera laga ta ezer erantzun ez, baña, zer bait esan barik ere ezin egon, dana dala, ni baño idazle trebiagoak badira, uste dot, «JAKIN» oneri batek baño geiagok erantzun biarko leukiela, ba, nun nai dago erantzuna, ingoski ba-koitza dago ergelkeriz beteta.

Luziegi da Manolo Pagola'k esaten dabena baña zatika ba-

ñoibe ez bada ona emen zelan agertzen daben E.A.J.ren ganako gorroto zitala, «—Euskeraren ortografi-az oraindik bat ez datorren alderdia, nola izango da, bada, izkuntzaren orokorra urratzeko gauza? PNVk bere baitan problemak baditu konpon ditzala. Baina PNV ez dago Euskal Herriarekin berdintzerik eta euskal Herria ezin deiteke egon bere Gobernuari hizkuntz politica urgentea esijitu barik. Otsaillak 25 jaio den Batzorde Aholkuemaileak orain baino lehen sortu behar zuen. Erabakita ez bada ere gutxienik argituta egongo ziren hainbat arazo: Horixe egin ez dalako uler daiteke *Euskaltzaindiari epaiketa* bezalako panfleto lotsagarria, Eusko Alderdi Jeltzaleko abertzaleei eskainia gainera ateratzea: ez hanka ez buru; irudimenik gaisoenak ere nekez asmatuko lituzkeen aleak jaurtiz; Halako lan triste baten aurkezpenaren albisteak DEIA-ren lehen orrialdea merezi zuela ikusteak ere ematen du zer pentzaturik.— Onen lako er-txiz beterik dago «JAKIN» ori, irakurle zentzun dun batek ikusi baño ez dau guzurkeriz ta gorrotoz jarraitu gura nai dabenla euren alperreko *euskara batua* aurrera eroan nairik».

«ZERUKO ARGIA» bai, oso aldizkari entzutetzua izan zan, baña, ¿noiz?... euzkera jatorrez ta erikoi idazten zanian, zer gaitik ondatu zan? erriak, erri osoak ez dabelako gura *euskara batu* ori, Amatiño izan ba euretako bat ZERUKO ARGIA'ren ondatzallia Gero, Otamendik diñon lez, Euskal aldizkarien berakadak ere erriak ez dabela nai ikusi ere olako euzkerarik, ta batez ere gure izkuntza «politica» tu egin dabelako ta gaur ez dago besterik, euzkera batu zikiñ ori nastauta dagolako «socialismo» «comunismo» ta osantzeko ezker joera gauzaez-duna gaur erabarriko joera.

Manolo, Manolito, Manolin, como Pepe, Pepito o Pepin, sinónimo de nombres castizos, es decir, *Manolo* Pagola onen iguingarritzko esaerak ere ez dira obeagoak, diñon lez, euzkeraren zuzkidatz (ortografía)ra oraindik etorri ez dan alderdia, nola izan leiken euzkera antolatzeko gauza. Alderdiak bere auziak badituz, euren arteko gaiak dirala ta ez *Euskal Erria-reen* bardintzerik ta ezin leikela bere Jaurlaritzari izkuntz gaie-tan jarki, ta, nor da ba Erria? E.A.J. gaur beñik bein alde nagusia da, Alderdi guztien gañetik, nagusi da, ta, *euzkaldun artian*, *euzkera itz egiten dogunen artian*, *euzkaldun utzaren artian* *nagusiago da*, nor da ba Erria? Iru laurdenko matrakalari txotxoloak?, atzerritar oitura ta legeak ezarri gura daben zirika-tzalleak dira Erria? Euzkal nortasuna sustsituten dabillen talde txiki ori alda Erria?

Alderdiak bai, baditu bere barruko auziak, baña, nork ez dauka auzirik? Alderdia ez da Txaideratzen laguntza eskatzen. Alderdiak bere auziak bere etxe barruan antolatzen dauz, ta, ez zuen lez zarataka laguntza eske txaidean. Alderdia zuen lakoa balitz, gaur beste giro baten egongo gintzanke *euzkal erri maite ontan*. Alderdiak, lenengotik esan izan baleu euzkera Sabin maitiaren ereduz izan biar dabela, zuek, atzerritar usain txarreko *comunista* ta ziztrinke-rizko asmo txar guztiak gaur, bapeztuta egongo ziran. Alderdiaren jasanzeria gaitik zabiltze beti adimen bako matrakalari ta iguingarritzko eginkizunetan. Alderdia ez zan sortu *político* lez, gure irakasleak, *aintzagarritzko Sabin maitia*, Alderdia sortu eban esanaz, Alderdiak bere amaiera eukiko dabela bein batian EUZKADI'k bere askatasuna lortzen dabenian, ALDERDIA DA BA EUZKAL ERRIA.

16n. Orrialdera

SALMUAK

Ezagutu daiguzan, ba, orain eta leenen, Qumran'go *Salmuak* euskeraz.

Salmu oneik oso ederrak dira, Biblian datozanak baizen onak, adierazleak diñoenez. Zortzi dira guztiz.

(Jakintzat artu bear diran berbak, mako-artean datoz).

XVIII

18'garren salmu onetan iru persona-talde agertzen dira: lauak, zintzoak edo bikaiñak eta gaiztoak. Lauai, Lagunarteari batzeko egiten yake dei.

«Jainkozaleak eta onak» parean ezarten dira, baita jakituria darabilena eta opariak eskintzen dauzana be. Jakituria persona lez artzen da.

1Alkartu egizuez bikaiñakaz zuen arimak. Goratu egizue bikaiñakaz batera Gorengo, alkartu zakieze. 2Lau guztiai Aren salbamena ta aundi-izatea eza-guerazoteko ardurabageak ez izan. Jaungoikoaren aintza agertzeko emon yatzue jakituria-ta.

4Baita Aren egintza pilloa esateko be, Adan'i ezaguerazo yakoan egintzak. 5Lauai Aren sendotasuna agertzeko; biotz-astunai Aren aundi-izatea ulerterazoteko; Aren ate-zubietatik urrun dagozan arei; euren oinkadetan uts egiten diarduenai.

7-8Bera, Gorengo, Jakob'en Jaun bakarra da-ta. 9Aren aundi-izatea egintza guztien geinetik egiten dau dizdiz.

Gorengo goratzen dauan gizona da 10Aren atsegingarri; odol-bagako oparia eskintzen dauan gizona, auntsak edo zezenak eskintzen dauzana lez.

11Altara-gaiñean opari pilloaren koipea eskintzen dauana lez, zintzoen kutik usaingarri gozoa eskintzen auana lez.

12Zintzoen ate-zubietatik entzun zan aren abotsa, 13Jainkozaleen batzarretik (igoten da) aren abestia.

Ase arte jaten dabenean, aretzaz giten dabe berba, eta, alkarregaz naitasunean edaten dabenean, 14Gorengoaren legea aurnartzen be. Arein berbak Aren sendotasuna eza-guerazoteko dira.

15Dongakandik urrun, benetan, aren itza, gaizto guztiakandik urrun eza-guerrea!

16Jaungoikoaren begiak, barriz, onakanako biozperatsu. Ugaritu egiten dau Arek bere biotz-ontasuna Bera goratzen dabenen gaiñera.

17Askatu egingo dauz aldi txarretik arein arimak. Bedeinkatu egizue Jaungoikoa, apalak arrotzen eskutik erosi 18eta bikaiñak dongen eskutik askatu egiten dauz-ta; Jakob'en indarra agerterazoten dau, baita Israel'dik errien auzi-ebazle bat be. 19Berak jarri eban bere txabolea Sion'en, eta Jerusalem'en bizi da betiko.

KEREXETA

XIX (euskerazko 2'garrena)

19'garren salmu au asketze-salmua da. Gizonak, alde batetik bere makaltasuna eta bestetik bera inguratzen daben ainbat arrisku ikusirik, ez dau bere burua sendo ikusten, eta, eskari au egiten dau: ez daitela ondamentian jausi eta Satanas'egandik askatu daitela.

1Lur-arrak ezin goratu zaizez, ezta biziotoak be zure biozperatasuna azaldu. 2Bizidunak, arnasadunak, onek bai, onek goratu egiten zaitu. Oin-koloka dagozan guztiak bedeinkatu egingo zaitue zeure biozperatasuna eza-guerazo dagizunean.

3Eta zeurezuntasuna irakatsi dagiezunean, edozein bizidunaren arimea zeure eskuan dago-ta.

4Ba-dakit aragi guztiai bizia-Zeuk emon dautsezuna.

Egizu gugaz, Jaungoikoa.

5Zeure ontasunaren eraz, zeure erruki ugariaren eraz etazeure zuzentasun-egintza pilloen eraz. Entzun dozu.

6Jaungoikoa, zeure izena maite daben guztien abotsa, eta ez dozu aldendu arekandik zure arreta.

7Bedeinkatua Jaungoikoa, zuzentasun-egintzak beteten dauzana,

8Jainkozaleai biozperatsu ta errukitsu koroea ezaten dautsena. Nire arimeak deadar egiten dau, zure izena esker-emo-teaz goraturik; (nire arimea) bitsetan dago 9zure errukiakaz.

Ez da azkenik izan bear zure zintzotasuna ta gorapena iragartean.

Eriotz-zorian nengoan 10nire pekatu ta gaiztakeriakaitik, Lezara saldu izan nenduen gaiztakeriakaitik. Jaungoikoak atara nenduan,

11Bere errukiaren eraz etabere zuzentasun-egintza ugarien eraz.

Egian esan, maite dot nik 12zure izena, etazeure gerizpean babestu naz.

Nire biotza adoretz beteten da zeure aal-izatea gogoraturik.

13Zeure errukitan jarten dot nire ustea. Parkatu, Jaungoikoa, nire pekatua.

14Garbitu egizu nire dongakeria. Emoidazu sinismen eta eza-guer-espirtua, eta ez daistela reizenona kendu.

15Ondamendian, ez nagiala Satanas'ek azpiratu, ezta espirtu zikiñak be!

Oiñaze ta jokera 16gaiztoa ez daitezala nire azurren jabe egin. Izan be, Zure zara, Jaungoikoa, nire gorapena eta Zeugan itxaroten dot 17egun oro. Poztu bediz nigaz batera nire anaiak eta nire aitaren etxea, zure lagun-tzak mirarrituta.

18Poztu egingo naz betiko.

KEREXETA

EUSKAL LORE JOKUAK (1982) KULTUR ETXEAREN ARDURAPEAN ONDARROA'N

Gaiak eta sariak

OLERKIA. (Ondarroa'ko Udala-
ren laguntzako).

150.000 peseta eta *Garai ikurra*,
ITXAS BIZITZA gai dala olerki
bakar edo txortarik onenari.
Gitxienez irureun lerro edo
bertso.

100.000 peseta, gai bardinean,
bigarren onenari.

JAKINTZA. (Bizkai'koForu Al-
dundiaren laguntzako).

150.000 peseta, Bizkai'ko kon-
daira, etnografi, toponimi edo
antzerako lanik egokienari.

100.000 peseta, gai bardiñeko
bigarren lanik egokienari.

IRAKURGIAK. (Eusko Jaurla-
ritzako Hezkuntza Sailaren la-
guntzako).

150.000 peseta, Txikientzako

irakurgai, kontu, alegi, ipuin la-
bur edo antzeko sailik onenari.

100.000 peseta, gai bardiñeko
bigarren onenari.

ANTZERTI. (Eusto Jaurlari-
tzako Kultur Sailaren laguntza-
koa).

150.000 peseta, Txikiak antzertu
al izateko antzerki lanik onena-
ri.

100.000 peseta, gai bardiñeko
bigarren onenari.

OIÑARRIAK ETA BALDINTZAK

1. Lanak euskeraz idatziak
izan bear dira, edozein lite-
ratur uskalkitan, orijinalak
eta argitaratu bakoak.
2. Lanetan literatur balioa
neurtuko da gain-gaiñez, eta
ez euki leikien beste balio-
rik. Antzerti saillean, erraz
antzertu al izateko gaita-
suna be kontu artugarri
izango da.
3. Lanak orrialde baten eta
tarteune az mekanografitura
agertu bear dira. Lan ba-
koitzeko au kopia bialdu
bear dira.
4. Lanak bialtzeko epea Irai-
lla'ren l'an amaituko da.
Bialtzeko zuzenbidea: Kul-
tur Etxea, Artabide 13, On-
darroa (Bizkaia).
Lan bakoitza lemaategaz
bialduko da. Eta beste karta
baten, azalean, ezaugarria
bakarrik, eta barruan,
5. Epai maikoak Kultur
Etxeak izentatuko dauz,
euskaltzale ezagunen ar-
tean. Eta Kultur Etxeko zu-
zendaria edo bere orde-
zkoen bat epai-maikide
izango da. Epai-maikoen
erabagia aldatu eziña
izango da.
6. Gai bakoitzeko lenen saria
erdibitu eziña izango da. Bi-
garren saria, epai maikoak
ala uste izan ezker, zatitu
lei, baiña ez utsik laga.
7. Sarien bat, lanik ezagaitik
emon barik geratuko ba litz,
dirutza ori egoki deritxan
beste gairen batera aldatu
lei. Ala egi ezik, beste leia-
keta baterako iragartera
beartuta lotzen da Kultur
Etxea, urrengo urtearen
buruan.
8. Saritu bako lanak eskatu
ala biurtuko dira, egille lez
agertzen diranei.
9. Kultur Etxeak, ala nai izan
ezker, baimen osoa eukiko
dau bere babesean agertu-
tako aldizkariren baten de-
ritxoan saritutako lanak
osorik edo zatitan ager-
tzeko. Alaz eta jaubetasuna
egilleentzat lagaten dau.
10. Sari banaketa Ondarroa'n
egingo da, Lore Jakoetako
jai nagusian, garaiz iraga-
rriko dan 1982 urteko Udaz-
keneko igande baten.
11. Oiñarrietan edo ta leiake-
tari buruz sortu leikezan go-
raberetan, Ondarroa'ko Kul-
tur Etxeak eukiko dau az-
ken itza.

Kultur Etxea. Ondarroa.

EGUN ILLUNAK

*Bizitzan
tarteak,
egun illunak dagoz
ta, batzuetan
odeiz, lainoz,
negarraren barrunbean
jausten gara
illunpean.*

*Ez da inor gogoratzen
bizi garanik be*

*ta,
biziak kizkurtu,
biziak estatu
egiten gaitu.
Bai,
ba'dakigu
gatxa dala
burua jasotzea,
goizero
gure zanetan*

*odola
lenera ekartzea.*

*Izangune baltzak
barrenduak azurretan
edozeini
atzerantz eragiteko
anakoak diranak;
egun gogor, latzak,
biziari*

*esaten dautsenak
ez gagozala etxean
ta, beste egun batean
etortzeko.*

Muniategi-tar Sabin.

1982-2-7.

ALPERREKO ZEREĞIÑAK

13n. orialdetik Guk, euzkotarrok, benetan maite badogu EUZKADI ez daukagu zertan ibilli anai artian burukalari atzerrira begira, *comunista* izan biar bagera, geure antzera izango gara, baña, lenengoz izan gaitezen abertzaleak, aberrizaleak, euzkotarrak, euzkaldun jatorkisunekoak, *política* gaiak ez daigun txaideratu lenbiziko lez, aldendu daigun anai arteko gorrotoak beinik bein EUZKADI'ren askatasuna lortu arte.


Euzkera ondatzen zabiltzenok, zuek, guk baño obeto ikusten dozuenok egunetik egunera gure izkuntzaren ardura bapeztutzen doila, irakurlerik ere ez daukazuela ta ain bat miñ egin dozuenok 14 urte ontan, zer dala ta jarraitu nai dozue ba euzkera suntsitutan.

EUZKALTZAIDIARI EPAIKETA'ren gaitik diñozu zuk, Manolo, «panfleto» lotsagarria dala, eta gañera E.A.J.ko abertzaleari eskeiñia, nori eskeiñiko dautze ba? zuei? edo Federico Krutwig ta bere lagunozte Jaungoikogabeko (ateos) ri?, bai EUZKALTZAIDIARI EPAIKETA, legekoka da, E.A.J. koari eskeiñitzea baña nik uste dot, obeto izango zala eliz sinistendun guztiari, ba, jakiñekoka da


Krutwig eta bere irulau lenbiziko jarraitzaleak Ateo'ak, Sabiñ'en eredu apurtzea gaitik atera ebenla *euzkera batu* nastu ori. Euzkalerriaren sinismen elizkisinaren aurkakoa izan danik, iñok ezik leike ukatu, orregaitik ba, E.A.J. koari eta eliz gizonarentzako egiña izan biar zan, batez ere Villasante, ¿kristautar?,...! eta buru bako lekaide ta apaiz jarraitzalearentzako, ta, beste gauza garrantziko bat, idasti ori, gasteleraz egin bear zan, erdeldun zozo onurakor batek baño geiagok begiak zabaldu daizen.

Amalau urte ontan, euzkerari etzerakada negargarria emon dautzazue, ain burugogorreko adoretzu jarraituko ote dozue ba? batez ere zuek, or zabiltzezenok kristoren ikasbidekuok? ¡...! zeren bila zabiltzezenok kristoren ikasbidekuok?,...! zeren billa zabiltze?, ez dakizue zozo-onurakor (tontos útiles) batuz baño ez zariela?, argitu beinik bein, ta argi ta garbi erakutsi nor dan zuen joera, ezker- edo eskuma.

Górri

24.^a

23.^a ERANTZUNA



- 1 Absurdo - Tripulación
- 3 Letrado - Los del ejército
- 4 Pera
- 5 Mezcla - Huida - A ratos
- 6 Bueno
- 7 Allí - Humilde - Cariño
- 8 Celemin
- 9 Noche - Brotar
- 10 Grasa
- 11 Besar
- 12 Barroco - Listo
- 13 Familia - Televisión
- 14 Pie - Este esto - Cebada
- 15 Rompecabezas
- 16 Por separado
- 17 Donde - Gusano
- 18 Café - Hollín - Mendigar
- 20 Cómo - Importante
- 21 Piel - Reloj
- 23 Triturar - Accidentalmente
- 25 Fascinador - Con humildad

- 1 Obscuridad - Salud - Pizarra
- 2 Yo - Barbilla
- 3 Rebelde - Sufijo terminativo de nombres
- 4 Entender - Morir - Tierra
- 5 Incomprensible
- 7 Tres - Sobremesa
- 8 Inteligente - Lejos
- 10 Según conforme - Perder - Abundancia (la)
- 11 Voy
- 12 En ningún sitio
- 13 Sincero - Exclamación de sorpresa
- 14 Romper
- 15 Acción de pagar - En seguida - Inmediatamente
- 16 A ver sí
- 17 Afligir - En el agujero - Lo último
- 19 Frecuentemente - Pasadizo
- 21 Esforzarse
- 22 Escarpado
- 23 Heredero - Enloquecedor
- 25 Villanía, ruindad - Seco - Aguja

EUSKALTZAINDIARI EPAIKETEA

Liburuak, idazki arek, gogorik onenaz euskerearen zenbat zer, bururatuz batasuna on eta egokitzen artzen ebenak, odol-izerditan itxartu ebazan an datozenakaz jabetzean.
Ez dira txantxeta-mantxetakoak izan be!

Arantzazu'ko Batzarra txanpanaz goratuz egin zan; euskal-jaun Lekuona aundi-aundia etxera bialtzea, zarra zalako egin ei zan.

Lekuona jauna egoan zizaullitik jagi-arazorik, eta kalean itzitea asmatu ebenak, ogeitak izan ziran; «madarikatua» be bai.

Biltzar aretako isillak eta EPAIKETA, bizirik iraungo dabenentzat, orpo barrientzat, kondairak esango dautse, nolan eta zelan izan zan.

EAJ'ko abertzalez asi, Aldundian zear, Eusko-Jaurlaritzan eta inguru-minguru, diran «andi txiak» tartekoturik, epaiketa barria bear genduke, erdi-isillean diran ainbat zapi aizeratuz.

Ogi biguna ta norberaren izatea andikeri ta arropuzturik zaintzen daben guztiak barruratzen dodaz.

Etxenike jauna, zenbaten autarkiz aldapan gora igona, apaltasunik aundienaz natortzu, esanik dozuzan zerbaitzuk argiagotu dagizuzan. Bion artean argitu dagiguzan.

Bizkai'ko euskereari buruz, bizkaitarrok eginbearreko arazoa dala, esana dozu. Egi txit aundia diñozu.

Zorroa Bizkai'koa garia be bai, zorro orretako garia ezkerreko ankeaz lurra aztintzen dauan olloari damotsezu.

Jakin gura neukena zera be ba-da: Zerk itzu-arazi zinduzan, zin egindakoen ezker-ezkerrera igarotzeko?

LANDAJUELA'tar A'k

EUSKERAZALEAK-IPUIN SARIKETA OARRA

Ipuinēn azterketa uste izan dan baiño geiago luzatu jake epai-maikoai eta erabagia datorren illeko ZER aldizkarian agertuko da.

Eskerrik asko sariketa onetara sartu diran guztiai eta onenak irabazi dagiala.

IDAZKOLAKOAK



ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupié en nosotros

Zeure nrota gurean



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA